



ERABAKIA, 2019ko APIRILAREN 8koa, BIZKAIKO CAMPUSEKO ERREKTOREORDEARENA, "THINK BIG 2019" ENPRESA IDEIEN LEHIAKETARAKO DEIALDIA EGITEKOA, UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN BIZKAIKO CAMPUSEKO ZITEK PROGRAMAREN ESPARRUAN

1. LEHIAKETAREN XEDEA

"Think Big 2019" enpresa ideien lehiaketa Bizkaiko Campuseko unibertsitarioen artean ekintzailtzaren kultura hedatzeko ekintzen esparruan kokatzen da.

Lehiaketaren asmoa ekintzailetasuna sustatzea da, ikasleak beren ezagutzak eta lanbide esperientziak aplikatzera motibatuz, komertzialki bideragarriak diren zerbitzuak eta produktuak gara ditzaten.

Zitek Programak behar diren bitartekoak jarriko ditu beren ideia martxan jarri eta enpresa proiektu bihurtzea erabakitzen duten parte hartzaileen eskura, horiek sarituak izan edo ez.

Bestetik, lehiaketak komunikazio kanal bat sortu nahi du ekintzailearekin, haren beharrei hobeto erantzuteko eta edozein ekimen edo negozio ideiatarako laguntza emateko.

2. PARTE HARTZAILEAK

Negozio ideia bat duten eta jarduteko gaitasun osoa duten honako pertsona edo talde hauek parte hartu ahal izango dute lehiaketa honetan:

- Gaur egun Bizkaiko Campuseko edozein fakultate edo eskolatan matrikulatutako ikasleak edo Bizkaiko egoiliar diren eta UPV/EHUren beste campus batean matrikulatuta dauden ikasleak, masterretan eta doktoregoetan matrikulatutakoak barne. Horiekin batera, proiektu horiek egin, sustatu, lagundu edo dinamizatu dituzten irakasleak ere aurkeztu ahal izango dira, hala zuzenean nola lehiaketaz informatuz eta jarraipena eginez. Paragrafo honetan aipatutako edozein ikasketa 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera bukatu duen edonork ere izango du parte hartzeko aukera.



Ezin dute parte hartu 2018ko martxoaren 1a baino lehen eraturako enpresek.

Talde edota pertsona bakoitzak nahi beste negozio ideia aurkeztu ahal izango ditu.

Saria lortzeko hautagai izateko, ez da ezinbestekoa ideia enpresa bihurtzea; nolana ere, epaimahaiak gehien baloratuko duen alderdietako bat izango da jada eratuta egotea edo eratzeko bidean egotea.

Lehiakideek, aurkezte soilarekin, oinarri hauek ontzat ematen eta onartzen dituztela ulertzen da. Onarpen hori, era berean, zinpeko adierazpen batean jasoko da.

Kanporatu egingo dira lehiaketatik:

- Dokumentazioa epez kanpo aurkezten dutenak.
- Oinarriren bat urratzen dutenak.
- Datu faltsuak aurkezten dituztenak.
- Edozein bitartekoren bidez Epaimahaiaren erabakian eragiten saiatzen direnak.

3. NEGOZIO IDEIAREN AURKEZPENA

Lehiaketa honetan parte hartzeko eskaerak, beharrezko dokumentazioarekin batera, **2019ko maiatzaren 15eko 14:00ak arte** aurkeztu ahal izango dira, **ahal izanez gero bitarteko elektronikoak erabiliz (mezu elektroniko bat bidaliz zitek@ehu.eus helbidera)**, baina paperean ere aurkez daitezke.

Eskaera paperean aurkeztea erabakiz gero, ideia bakoitza gutun azal itxi batean aurkeztu beharko da, kanpoaldean lehiaketa identifikatzeko testua bakarrik idatzita, egoitza hauetako batean:

- a) Sarrikoko **Enplegu Zentroa**, Basoko Etxea - Sarrikoko parkea, Agirre Lehendakariaren etorbidea 8, 48015 Bilbo. Tel. 94 601 3680.
- b) Halaber, eskaerak **Bizkaiko Campuseko Erregistro Orokorretan** aurkeztu ahal izango dira (UPV/EHUren 2007ko maiatzaren 28ko Erabakia, 2007ko abuztuaren 3ko EHAA) edo, bestela, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.
 - BIZKAIKO 3. Erregistro Orokorreko Bulegoa
Errektoregoa
Sarriena auzoa z/g.
48940 Leioa
 - BIZKAIKO 66. Erregistro Orokorreko Bulegoa
Larrako Etxea
Agirre Lehendakariaren etorbidea 81



48015 Bilbo

- BIZKAIKO 71. Erregistro Orokorreko Bulegoa
Bilboko Ingeniaritza Eskola
Torres Quevedo Ingeniariaren plaza 1,
48013 Bilbo

Aurkeztutako proposamenak jaso behar dituen dokumentazioa eta edukia:

- a) **Izena emateko fitxa.**
 - Izena emateko fitxan adierazten den helbide elektronikora bidaliko dira lehiaketa honekin lotutako jakinarazpenak.
 - Irakasle baten partaidetza duten proiektuen kasuan, haren izena ere adierazi beharko da. Gainera, GRAL bat den ere adierazi beharko da.
- b) **Proiektuaren memoria** (proiektuaren memoria eredu bat jarriko dugu parte hartzaileen eskura).
- c) **Laburpen exekutiboa**, gehienez ere hiru orrikoa. Laburpen exekutibo horrek honako alderdi hauei erantzun beharko die:
 - 1.- Proiektuaren izena (egileak identifikatu gabe).
 - 2.- Merkatu nahi den produktu edo zerbitzuak konpontzen dituen arazoak.
 - 3.- Produktu edo zerbitzuak bezeroen edo merkatuaren zer beharrei erantzuten dien.
 - 4.- Produktuaren edo zerbitzuaren zer ezaugarrik eragiten duten berau berritzailea izatea eta beste produktu edo zerbitzu batzuetatik bereiztea.
- d) Proiektua laburbiltzen duen **eslogan edo esaldi** bat, 15 hitz baino gutxiagokoa.
- e) Oinarriak onartzeko zinpeko aitortpena.

Epaimahaiak, erabakia hartu baino lehen, proiektuko pertsona bati edo batzuei bere aurrean agertzeko eskatu ahal izango die, proiektua ahoz aurkezteko.

4. BALORAZIO IRIZPIDEAK

Negoio ideiak baloratzeko, idatzizko aurkezpena eta, hala dagokionean, ahozkoa hartuko dira kontuan:

- 1.- Ideiaren berritasuna eta originaltasuna % 30
- 2.- Ideiaren garapena % 20
- 3.- Bideragarritasun teknikoa eta ekonomiko-finantzarioa % 20
- 4.- Negoioaren martxan jartze maila % 30



5. ERABAKITZEKO PROZEDURA

Lehiaketa hau Bizkaiko Campuseko errektoreordearen erabakiz ebatziko da, klausula honetan xedatutako epaimahaiaren proposamenean oinarrituta. Erabaki hori <http://www.emprendedoreszitek.com/> webgunean argitaratuko da eta deialdi honekin lotutako jakinarazpenetarako eman duten helbide elektronikora bidalita jakinaraziko zaie hautagaiei.

Erabaki horren aurka, berraztertze errekurtsua aurkez daiteke, hilabeteko epean, erabakia argitaratzen den egunetik kontatzen hasita, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak xedatutakoaren arabera.

Hala ere, administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da, erabakia argitaratzen denetik bi hilabeteko epean. Berraztertze errekurtsua jartzen bada, ezin izango da administrazioarekiko auzi errekurtsorik jarri, berraztertze errekurtsuaren berariazko edo isilbidezko erabakia eman arte.

Epaimahaiak honako kide hauek izango ditu:

- UPV/EHUren ordezkari bat, idazkari jardungo duena, Bizkaiko Campuseko errektoreordeak izendatua.
- Bizkaiko BEAZen ordezkari bat.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Sailaren ordezkari bat.

5.1. Lanak onartzeko epea bukatzen denetik bost egun naturaleko epean eratu beharko da Epaimahaia, eta 2019ko maiatzaren 27a baino lehen egin beharko die deialdia ahoz aurkeztu beharrekotzat jotzen dituen proiektuei. Idazkariak Epaimahaiaren bilera guztien aktak egingo ditu eta epaimahaikideek sinatu egingo dituzte.

5.2. Epaimahaiaren egitekoak

- 1.- Planteatutako eskaerak berrikustea eta aurkeztutako proposamenean dokumentazioa zuzentzeko edo informazio osagarria aurkezteko eskatzea.
- 2.- Epaimahaiak, lehiakideek aurkeztutako dokumentazioa eta ideiak aztertu eta dagozkion gogoetak egin ondoren, erabaki proposamen bat egingo du, behar bezala arrazoituta eta proiektuei emandako puntuazioan oinarrituz.
- 3.- Epaimahaiak oinarri hauetan arautu gabeko mota guztietako auziak interpretatzeko ahalmena du.
- 5.- Epaimahaiak Campuseko errektoreordeari helaraziko dio bere erabaki proposamena, eratzen den egunetik hasita gehienez ere 10 egun naturaleko epean.



6. SARIAK

Lau sari hauek emango dira:

- **Lehen saria, 2.500 €-koa.**
- **Bigarren saria, 1.500 €-koa.**
- **Bi hirugarren sari, 800 €-koak (horietako bat GRAL onenarentzat izango da, betiere 1. edo 2. saria jaso ez badu).**

Epaimahaiak sari horiek proiektu baten baino gehiagoren artean banatzeko **aukera** izango du, baita **00 euroko gehienez 3 accesit** ematekoa ere.

Gainera, pertsona edo talde irabazleek, ideia martxan jartzea erabakiz gero, prestakuntza, aholkularitza eta kokapen fisikoa jaso ahal izango dituzte ZITEK Programako enpresa zentroetan, negozio plana prestatzeko eta enpresa jarduerak abian jartzeko. Gainerako parte hartzaileek ere, nahiz eta beren ideia saritua ez izan, aukera horiek izango dituzte, enpresa bat eratu nahi izanez gero.

Sarietako batzuk **hutsik laga daitezke**, negozio ideiek ez badute, Epaimahaiaren iritziz, gutxieneko kalitate eta originaltasun mailarik lortzen.

Sariak eskuratu ahal izateko, 100 puntutatik gutxienez 65 lortu beharko dituzte proiektuek.

Emaitzak **2019ko maiatzaren 31ko** 13:00etan jakinaraziko dira, UPV/EHUko espazioetakoren batean egingo den **sariak emateko ekitaldian**. Parte hartzaileei behar besteko aurrerapenarekin emango zaie garaipenaren berri. Emaitzak www.emprendedoreszitek.com webgunean, Facebooken eta Twitterren ere argitaratuko dira.

7. PARTE HARTZAILEEN BETEBEHARRAK

- Lehiaketaren oinarriak onartzea.
- Negozio ideia adierazitako moduan entregatzea.
- Datuen zehaztasuna bermatzea.



8. ANTOLAKUNTZAREN BETEBEHARRAK

Antolakuntzak konpromiso hauek izango ditu:

- Beren ideia enpresa bihurtu nahi duten parte hartzaile guztiei doako prestakuntza ematea, enpresa plana garatu ahal izateko behar dituzten ezagutzak bereganatu ahal izan ditzaten, martxan jartzeari eta dirulaguntzak eta finantzaketa bilatzeari buruzko aholkularitza ematea eta Bizkaiko Campuseko enpresen mintegietako batean lokal bat uztea.
- Parte hartzaileek aurkeztutako proiektuen pribatutasunari eustea.

9. KONFIDENTZIALTASUN AKORDIOA

Aurkeztutako proiektuen pribatutasuna eusteari dagokionez, lehiaketako Epaimahaiak eta proiektuen berri eduki dezaketen pertsonak honelako tratamendua emango diote lehiakideek aurkeztutako informazioari:

- Proiektuaren izenburua, lehiaketan parte hartzeko entregatutako dokumentuan agertzen dena, publikoa izango da eta horren berri eman ahal izango da.
- Emandako gainerako informazioa proiektuak ebaluatzeko bakarrik erabili ahal izango da.
- Emandako informazioa ez zaie inola ere pertsona edo erakunde publiko edo pribatuei transmitituko edo jakinaraziko, egileen baimen eta adostasunik gabe.
- Lehiakideek emaniko informaziotik abiatuta sortutako edozein dokumenturi ere erabateko pribatutasunaren printzipioa aplikatuko zaio.
- Lehiaketa garatu bitartean, baita gerora ere, proiektuaren izenburua eta proiektuok jendaurrean ezagutarazteko egileek beharrezko gisa onartutako datuak bakarrik jakinaraziko dira.
- Lehiaketako parte hartzaileek onartzen dute, kontrakoa berariaz adierazi ezean, beren ideia Ziteken esku geratuko dela, beste ekintzaile batzuek ustia dezaten, ez badute 2020.06.01a baino lehen inolako forma juridikorik eratzen (autonomoaren figura barne).

10. ZIURTAPENA

Proiektu irabazlearen titularrak edo titularrek ziurtapen bat jasoko dute antolakuntzaren eskutik, irabazleak direla eta saria adjudikatu zaiela bermatuko duena.

UPV/EHUko ikasleek lehiaketan parte hartu dutela egiaztatzen duen diploma bat eskatu ahal izango dute; horren bidez, Graduako ikasketetako hautazko **kreditu 1** lortu



ahal izango dute. Kreditu hori eskuratu ahal izateko, proiektuak 100 puntutatik gutxienez 60 lortu beharko ditu.

11. ZABALKUNDEA

Deialdi hau Bizkaiko Campuseko iragarki ohoan eta UPV/EHUren iragarki ohol korporatiboan (ehutaula-Bizkaiko Campusa) argitaratuko da eta webgune honetan egongo da eskuragarri: <http://www.emprendedoreszitek.com/>

Deialdi honetako gainerako egintzak eta komunikazioak webgune honetan argitaratuko dira: <http://www.emprendedoreszitek.com/>

12. ERREKURTSOA

Erabaki honek administrazio bidea agortzen du eta bere aurka berraztertze errekurtsua aurkez daiteke, hilabeteko epean, argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak zehaztutakoaren arabera.

Hala ere, administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da, erabaki hau argitaratzen denetik bi hilabeteko epean. Berraztertze errekurtsua jartzen bada, ezin izango da administrazioarekiko auzi errekurtsorik jarri, berraztertze errekurtsoren berariazko edo isilbidezko erabakia eman arte.

Erabaki hau argitaratzen denetik sei hilabetera webgunean ez bada inolako esleipen erabakirik argitaratzen, interesdunek ezetsizat jo ahal izango dute beren eskaera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikuluan zehaztutakoarekin bat.



Francisco Juaristi Larrinaga
UPV/EHUko Bizkaiko Campuseko errektoreordea
Vicerrector del Campus de Bizkaia UPV/EHU